XEDAPEN OROKORRAK

SEGURTASUN SAILA

2182

AGINDUA, 2016ko maiatzaren 9koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bederatzigarrenez aldatzen baita Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Agindua, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena.

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluak hauxe xedatzen du: Estatuko Buletin Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez bakarrik sortu, aldatu edo kendu ahal izango dira Administrazio Publikoetako fitxategiak.

Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluaren arabera, fitxategiaren ardura duen saileko titularraren agindu bidez sortu, aldatu eta ezabatu beharko dira Autonomia Erkidegoko Administrazioko fitxategiak. Eta indarreko araudietan aginduta dagoen guztia aipatu beharko du agindu horrek, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko baita.

Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduaren bidez (2003ko irailaren 2ko EHAA, 170. zk.; hutsen zuzenketa, 2003ko urriaren 10eko EHAA, 198. zk.), Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren.

Agindu hori Herrizaingoko sailburuaren 2007ko apirilaren 2ko Aginduaren bidez aldatu zen (2007ko maiatzaren 7ko EHAA), zeina, halaber, Herrizaingoko sailburuaren 2007ko ekainaren 7ko Aginduak aldatu baitzuen (2007ko ekainaren 29an EHAA). Bestalde, Herrizaingoko sailburuaren 2008ko apirilaren 7ko Aginduaren (2008ko apirilaren 22ko EHAA) eta 2008ko azaroren 7ko Aginduaren (2008ko abenduaren 5eko EHAA) bidez sortu dira Herrizaingo Sailaren eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategi automatizatu berriak. Arau horren azken aldaketak hauek izan dira: Herrizaingoko sailburuaren 2010eko abenduaren 20ko Agindua (2010eko abenduaren 24ko EHAA); Herrizaingoko sailburuaren 2012ko martxoaren 9ko Agindua; Herrizaingoko sailburuaren 2012 irailaren 20ko Agindua, 2003ko irailaren 2ko Agindua –Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena– bosgarren aldiz aldatzekoa (2012ko martxoaren 30eko EHAA), eta Segurtasuneko sailburuaren 2013ko martxoaren 5eko Agindua, 2003ko irailaren 2ko Agindua –Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena– seigarren aldiz aldatzekoa (2012ko martxoaren 20ko EHAA), eta Segurtasuneko sailburuaren 2014ko apirilaren 16ko Agindua, 2003ko irailaren 2ko Agindua –Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena– zazpigarren aldiz aldatzekoa (2014ko maiatzaren 2ko EHAA, 81. zk.).

Azken aldaketa Segurtasuneko sailburuaren 2015eko martxoaren 26ko Aginduan egin da, 2003ko irailaren 2ko Agindua –Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena– zortzigarren aldiz aldatzekoa (2015eko apirilaren 10eko EHAA, 66. zk.).

Arau horiek argitaratu ondoren, beharrizan berriak sortu dira: lehenik, atzerrian dauden boto-emaileen frankeo-gastuak itzultzeko zenbait alderdi arautzeko fitxategi bat sortzea, eta bigarrenik, Kokalekuen arreta-prebentzioa fitxategia arautzea.

Gainera, hainbat fitxategi aldatu behar dira, indarrean den legeriara egokitzeko.

Horregatik, eta argitasuna eta legezko segurtasuna lortzeko, beste xedapen bat argitaratuko da, ordura arte indarrean daudenak osatzen dituena.

Hori dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Datu pertsonalen gaineko fitxategi gehiago sortzea, agindu honen I. eranskinean zerrendatuko direnak.

2. artikulua.– 4.– Industria informaziorako sistemak izeneko fitxategi automatizatua 2003ko irailaren 2ko Aginduaren I. eranskinetik kentzea –Agindua, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena–, jada ez baita beharrezkoa, eta, horrenbestez, tratamendurako erabilitako fitxategi logikoak kentzen dira.

3. artikulua.– II. eranskinean, zerrendatzen diren fitxategiak aldatzea.

4. artikulua.– III. eranskinean argitaratzea Segurtasun Sailak eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuen aurkibide berria.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Segurtasun Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Erregistroari jakinaraziko dio fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu izana, eta aipatu erregistroan inskribatzea edo inskripzioa aldatzea eskatuko du.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 9a.

Segurtasuneko sailburua,
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ.

I. ERANSKINA

FITXATEGI BERRIAK SORTZEA

I. eranskina.– Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren administrazio-fitxategiak.

II.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna.

B) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

63.– Atzerrian dauden boto-emaileen frankeoa itzultzea.

HELBURUA:
Atzerrian bertan ez dauden egoiliar boto-emaileen edo aldi baterako atzerrian bizi diren boto-emaileen frankeo-gastuak itzultzea, hala eskatzen badute.

ERABILERAK:
Atzerrian dauden boto-emaileen frankeoa itzulketa izapidetzea. Txostenak eta estatistikak egitea, generoaren arlokoak, batez ere.

ZE PERTSONA EDO TALDEREN DATU PERTSONALAK ESKURATZEN DIREN:
Era iraunkorrean edo aldi baterako atzerrian bizi diren hautesleak, boto-eskubideaz baliatu eta frankeoa itzultzea eskatzen dutenak.

BERTAN BILDUTAKO DATU PERTSONALAK JASOTZEKO PROZEDURA:
Era iraunkorrean atzerrian bizi diren boto-emaileen datuak lortzeko, Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeek itzultzeko eskaerak igorriko dizkiote Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzari.

Aldi baterako atzerrian bizi diren boto-emaileen datuak lortzeko, Hauteskunde Mahaiek (3. gutunazala) itzultzeko eskaerak zuzenean igorriko dizkiote zuzendaritzari berari.

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA ETA BERTAN DAUDEN DATU PERTSONALEN DESKRIBAPENA:
Datu pertsonalak: izena eta bi abizenak, eta identifikazio-zenbakia hala dagokionean, posta-helbidea eta herrialdea.

AURREIKUSTEN DIREN DATU-LAGAPENAK ETA TRANSFERENTZIAK:
Kontratuaren erakunde esleitzaileari, behar diren zenbatekoak itzultzeko.

SEGURTASUN MAILA:
Oinarrizkoa.

ORGANO ARDURADUNA:
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZABATZEKO ETA HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEAZ BALIATZEKO ORGANO HONETARA JO BEHARKO DA:
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

II. Eranskina.– Polizia Zerbitzuetako Datuak Lantzeko Zentroaren administrazio-fitxategiak (PZDZ).

59.– Kokalekuen arreta-prebentzioa.

HELBURUA:

Kokalekuen kokapena, baldintzak, kalteberatasuna eta kokaleku horien arduradunekin harremanetan jartzeko bideak ezagutzea (landa-ingurunea, instalazioak, merkataritzako establezimenduak, etab.), toki horietarako prebentzioa eta arreta planifikatu eta kudeatzeko, beharrizan-irizpideen arabera, eta gerta litezkeen jarduketen kudeaketa optimizatzea, era berean.

ERABILERAK:

Helburu polizial eta administratiboetarako jarduketak.

ZE PERTSONA EDO TALDEREN DATU PERTSONALAK ESKURATZEN DIREN:

Harremanetarako pertsonak, eta, hala dagokionean, kokalekuekin zerikusia duten beste batzuk.

DATU PERTSONALAK JASOTZEKO PROZEDURA:

Interesdunak edo haren legezko ordezkariak emanda, elkarrizketen, papereko zein euskarri magnetiko/informatikoko inprimakien bidez; betiere, pertsona horien berariazko adostasuna beharko da haien datuak erregistratu eta erabiltzeko.

Toki horietako gertakarietan parte hartzen duten polizia-zerbitzuen jarduketetan eskuratutako informazioaren bidez.

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA ETA BERTAN DAUDEN DATU PERTSONALEN DESKRIBAPENA:

Datu hauek dituen datu-basea:

Kokalekuak eta toki horiekin zerikusia duten pertsonak identifikatzeko datuak (NA/IFZ –edo bestelako nortasun-agiriak– izena, abizenak, helbidea –postala/elektronikoa–, telefonoa, familia-datuak eta adina).

Kokalekuaren ezaugarriei, kokapenari, sailkapenari, jarduketei, bizigarritasunari, baldintzei, arretari eta kalteberatasunari buruzko datuak (irizpide hauei jarraikiz: bizigarritasuna, ibilgailuen presentzia, gertakarien maila edo interesa, armen presentzia edo segurtasun-neurriak, irisgarritasuna, etab.).

AURREIKUSTEN DIREN DATU-LAGAPENAK ETA TRANSFERENTZIAK:

Gertakari posibleen arretarako eta kudeaketarako informazioaren hartzaileak polizia-zerbitzuak dira –eta, hala dagokionean, larrialdi-zerbitzuak–, eta ez da aurreikusten sailarena ez den inongo datu-lagapenik, non eta, salbuespenez, hala behar dela irizten ez den Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako legezko aurreikuspenen babesean, eta, bereziki, lege organiko horren 11. eta 21. artikuluen arabera.

SEGURTASUN MAILA:

Handia.

ORGANO ARDURADUNA:

Segurtasun Sailburuordetza (Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza-Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroa).

DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZABATZEKO ETA HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEAZ BALIATZEKO ORGANO HORRETARA JO BEHARKO DA:

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza (Larrauri Mendotxe bidea 18, 48950 Erandio, Bizkaia).

II. ERANSKINA

I. eranskineko hainbat fitxategi aldatzea, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen Herrizaingoko sailburuaren 2003ko irailaren 2ko Aginduak sortuak.

I. eranskina.– Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren administrazio-fitxategiak.

I.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

A) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

1.– SOS DEIAK.

HELBURUA:

Zuzendaritzak kudeatutako larrialdi-jarduketen kontrola izatea.

AURREIKUSITAKO ERABILERAK:

Larrialdien kudeaketa integratua.

Jarduketa-moduen (taktikoak, operatiboak, etab.) ebaluazioa, azterketa eta planifikazioa.

Jazotako gertakarien berreraikuntza.

Estatistikoak.

ZE PERTSONA EDO TALDEREN DATU PERTSONALAK ESKURATZEN DIREN:

Jarduketetan nahasitako pertsonak, datuak hartzeko eredu baten pean, izan egituratua zein ez-egituratua (formatu askea).

DATU PERTSONALAK JASOTZEKO PROZEDURA:

Telefono eta irrati bidezko komunikazioak eta informatika bidezko datu-lagapena, larrialdi batean esku hartzen duten telefono-operadoreek eta erakunde laguntzaile parte-hartzaileek egiten dituztenak.

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA ETA BERTAN DAUDEN DATU PERTSONALEN DESKRIBAPENA:

Jarduketetan nahastuta dauden pertsonen identifikazio-datuak (osasun-datuak barne) barne hartzen dituzten datu-baseak.

AURREIKUSTEN DIREN DATU-LAGAPENAK ETA TRANSFERENTZIAK:

Herri Administrazioen zerbitzu operatiboak, larrialdia eragin duen gertakaria konpontzeko eskumena dutenak.

SEGURTASUN MAILA:

Handia.

ORGANO ARDURADUNA:

Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza.

DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZABATZEKO ETA HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEAZ BALIATZEKO ORGANO HORRETARA JO BEHARKO DA:

Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

3.– LARRIALDIETARAKO PLANAK

HELBURUA:

EAEko larrialdi-planen erregistro bat izatea.

ERABILERAK:

Udalerrian edo udalerriaz gaindi gerta litezkeen larrialdien kudeaketa erraztea, egin beharreko jarduketak planifikatuz.

ZE PERTSONA EDO TALDEREN DATU PERTSONALAK ESKURATZEN DIREN:

Dena delako larrialdi-jarduketetan nahastutako pertsonak (aldundiak, gobernua, portuak, aireportuak).

DATU PERTSONALAK JASOTZEKO PROZEDURA:

Hainbat erakundek lagatako datuak.

FITXATEGIAREN OINARRIZKO EGITURA ETA BERTAN DAUDEN DATU PERTSONALEN DESKRIBAPENA:

Dena delako larrialdi-planaren arduradunen eta larrialdi-jarduketa horretan nahastutako bestelako zerbitzuen arduradunen identifikazio-datuak barne hartzen dituzten datu-baseak.

AURREIKUSTEN DIREN DATU-LAGAPENAK ETA TRANSFERENTZIAK:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 21. artikuluen araberakoak.

SEGURTASUN MAILA:

Oinarrizkoa.

ORGANO ARDURADUNA:

Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza.

DATUAK ESKURATZEKO, ZUZENTZEKO, EZABATZEKO ETA HORIEN AURKA EGITEKO ESKUBIDEAZ BALIATZEKO ORGANO HORRETARA JO BEHARKO DA:

Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

III. ERANSKINA

AURKIBIDEA

I. eranskina.– Segurtasun Sailaren eta hari atxikitako Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren administrazio-fitxategiak.

I.– Segurtasun Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna:

A) Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

1.– SOS Deiak.
2.– Urrutiko laguntza.
3.– Larrialdietarako udal planak.
52.– Datu hidrometeorologikoak eskatzea.
53.– Babes zibileko laguntzaileak diren boluntario-elkarteen erregistroa.
54.– Autobabes-planen erregistro orokorra.
57.– Autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien erregistroa.

B) Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

5.– Joko eta ikuskizunak.
6.– Debekuen eta autodebekuen erregistroa.
7.– Jokoa kudeatzeko tresnak.

C) Trafiko Zuzendaritza.

12.– Zehapen-espedienteak.
13.– Gidari-eskolak.
15.– Pertsonak.
19.– Trafikoa kudeatzea.
61.– Baimen osagarriak.

D) Ertzaintzaren Zuzendaritza-Ikuskaritza eta Administrazio Atala.

48.– Ertzainak laguntzeko kudeaketa.

E) Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza.

21.– Liburutegia.
22.– Ekinbide.
55.– Herritarrak erregistratzea.
56.– Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzainen Erregistroa.

II.– Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren menpeko zuzendaritzen erantzukizuna.

A) Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

34.– Kontratazio- eta ondare-espedienteak kudeatzea.
24.– Hornitzaileak / Kontratistak.
25.– Jantziak.

B) Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.

31.– Errekurtsoak / Erreklamazioak.
8.– Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde-kontsultak.
9.– Hauteskundeetako pertsona ospetsuak.
10.– Kargu publikoak.
11.– Komunikabideak.
58.– Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako boto irisgarria.
62.– Hauteskunde autonomikoetako ordainsariak kudeatzea.
63.– Atzerrian dauden boto-emaileen frankeoa itzultzea.

C) Giza Baliabideen Zuzendaritza.

59.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak I.
60.– Langileen kudeatze integratua – Giza baliabideak II.
27.– Medikuak.
28.– Kudeaketa medikoa – Giza Baliabideak.
29.– Epaileen zitazioak.
30.– Abokatu-laguntza.
47.– Lanbide identifikazioa kudeatzea.
49.– Laneko arriskuen prebentzioa.

V.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoa.

37.– Posta-erregistroa – Ikastegia.
38.– Liburutegia eta dokumentazio-eskariak kudeatzea.
39.– Hautatze-prozesuak.
40.– Prestakuntza akademikoa.
41.– Aholkularitza juridikoa.
42.– Kontratazio-espedienteak kudeatzea.
43.– Langileen kudeatze osoa – Ikastegia.
44.– Kudeatze medikoa – Ikastegia.

II. eranskina.– Euskal Herriko Poliziaren Datu Bilketarako Zentroaren menpeko fitxategiak.

1.– Aginte eta Kontrol Zentroaren jarduerak.
3.– Telefonemen erregistroa.
4.– Poliziaren posta-erregistroa.
5.– Polizia zentroak kudeatzea.
6.– Ekintza baliabideak kudeatzeko tresnak.
7.– Laguntza.
8.– Zentroetara sartzeko baimena.
9.– Sarrerak kontrolatzea.
10.– Segurtasun-enpresak.
11.– Segurtasun-neurriak hartu behar dituzten enpresak.
14.– Adierazpenak eta bilerak.
15.– Herritarren Segurtasunerako Legea (LSC) – Segurtasun pribatua aplikatzea.
16.– LSC zehapen-espedienteak.
17.– Genero-indarkeria.
18.– Ikerlan.
19.– Salaketak.
20.– Argiketak.
21.– Iturrien informazioa.
22.– Komunikazioen kontrola.
23.– Identifikazio genetikorako datu-basea.

24.– Ahotsak ezagutzea.
25.– Zantzuak eta adituen txostenak.
27.– Identifikatzea – Polizia zientifikoa.
28.– Heriotzak.
29.– Epaileen errekisitoriak eta aginduak.
30.– Polizia-intereseko gauzak.
31.– Polizia-intereseko ibilgailuak.
32.– Polizia-intereseko pertsonak.
33.– Identifikatuen liburua.
34.– Atxilotuen liburua.
35.– Atxilo.
36.– Presoen baimenak.
37.– Barneratuak eta atxilotuak lekuz aldatzea.
38.– Ospitaleratuen zaintzak.
39.– Zigiluak.
40.– Ibilgetutako ibilgailuak.
41.– Argiketarik gabeko trafiko istripua.
42.– Alkoholemia-probak.
43.– Diziplina-prozedurak.
44.– Ikerlan - Ikuskaritza orokorra.
45.– Iturrien informazioa - Ikuskaritza orokorra.
46.– Izapideak - Ikuskaritza orokorra.
47.– Bereizgarriak eta lanbide-txartela.
48.– Armen kontrola.
50.– Adin txikikoak erregistratzea.
51.– Bideo-zaintza euskarria.
52.– Komunikazio-lineak grabatzea.
53.– Segurtasun kontrola.
54.– Bideo-zaintza sarea.
55.– Oinetakoen aztarnak.
57.– Herritarren segurtasunerako jardueren erregistroa.
58.– Datuak eta prozedurak kudeatzea.
59.– Kokalekuen arreta-prebentzioa.